



ORIOKUDALA



Epaimahaiaren agiria

Urte berezi honetako EUSKARAZ GAZTE literatur lehiaketaren epaimahaia 2020ko azaroaren 27an elkartu zen Orioko kultur etxean. Epaimahaia honako hauek osatu zuten: Karkara aldizkariko Eli Manterolak, Aiako Udaleko kultur teknikari Eli Lasak eta Orioko Udaleko euskara-teknikari Jabier Zabaletak.

Epaimahaia pozik dago aurten lehiaketara aurkeztutako lanen kopuru eta kalitateagatik. Bizi dugun garai arraro honek izan du isla, nola ez?, aurkeztu diren lanetan, baina, ikusiko duzue, denetik dago aurten ere: istorio gozoak, garratzak, umorezko kontakizunak bertsoetan nahiz prosan, historian atzera eramaten gaituztenak... Nabarmentzekoa da, baita ere, jende gazte berria inguratu dela aurten lehiaketara —gehienak emakumeak, endemas— eta oso lan ederrak aurkeztu dituztela. Lehiaketak 27 urte bete ditu aurten eta pozgarria da guretzat ikustea segitzen duela tokitxo bat betetzen Orioko eta Aiako kulturaren esparruan. Literatura ukendu izan daitekeela uste dugunontzat pozteko motiboa da.

Jakin dezazuen: urtero bezala, Karkara aldizkariaren urtarrileko zenbakian publikatuko dira lan sarituak eta, hartara, Orioko eta Aiako etxe guztietara iritsiko dira.

Lehiaketara aurkeztutako lanak banan-banan aztertu ditu epaimahaiak eta, iritziak trukatu eta eztabaidatu ondoren, honako sariak ematea erabaki du:

Ipuin saila

«Zure amona garaira egokitzeko gida» izeneko lan bereziari eman diogu ipuin alorreko accesitetako bat. Berezia dela diogu, ez delako *stricto sensu* ipuin bat, baizik-eta gida labor bat, esplikatzen duena zer



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi

egin beharko lukeen gazte batek bere amona teknologia berrien eta sare sozialen amarauna horretan trebatzeko. Umorez kontatuta dago, ederki, eta estimatzen diogu egileari prosaren bizitasuna eta ausardia. 100 euroko saria eta oroitagiria irabazi ditu ipuin honekin Ane Etxabe Usandizagak. Datorrela jasotzera.

Alor honetako beste accesita «**Gogoetak**» ipuinari eman diogu. Agure zahar baten burutazioak kontatzen ditu ipuinak: garai bateko kontu zaharrekin batera, gaur egungo mundu aldrebesak sortzen dizkion buruhaustek eta kezkek. Bi mundu oso desberdin lotzen dituen zubia da agurea eta horri buruz egiten du gogoeta. Poliki idatzita dago eta ezagun du egileak trebatuta dagoela idazkuntzan, gure lehiaketan parte hartzen duen lehen aldia bada ere. Datorrela bere 100 euroko saria eta oroitagiria jasotzera: Nadhet Arruti.

Ipuin alorreko hirugarren saria, 150 euro eta oroitagiria, «**On eta in**» ipuin pornoari eman diogu. Konfinamendu gogorrean idatzia dela esan digu egileak, etxean bakarrik gaudenean imajinazioak hegan egiten baitu. Egileak badu kontakizunerako abilezia eta ederki idatzi eta egituratuta dago ipuina, bukaerako «twist» eta guzti. Egilea ezaguna dugu lehiaketa honetan, Garazi Urretabizkaia, eta ezin izan du ekitaldira etorri. Amak jasoko du saria.

Libana Taboadak irabazi du ipuin alorreko bigarren saria, 200 euro eta oroitagiria, «**Trena eta tratua**» lanarekin. XX. mendearen lehen erdiko Oriora eramaten gaitu egileak eta han Balbina Txiki rekadistaren ibilera eta joan-etorriak kontatzen dizkigu prosa dotorean. Rekadista lanbidearen gorabeherak ezagutuko ditugu horrela eta, bide batez, dagoeneko existitzen ez den mundu baten oihartzunak jasoko ditugu. Egileak berak kontatuko digu nondik nora sortu zitzaion ipuin hau idazteko gogo. Etorri, Libana, mesedez, saria jasotzera.

Aurtengo lehendabiziko saria, 300 euro eta oroitagiria, «**Gau giroan**» izeneko ipuinak irabazi du. Aurreko ipuinean bezala, garai bateko Orion kokatuta dago kontakizunaren hari nagusia, baina horren atzera joan gabe: 1970eko hamarkadan. Gizarte hartako elementu ugari azaltzen dira ipuinean: politika, ikurrina, guardia zibila... eta garai hura ezagutu genuen oriotarrantzat ezagunak diren erreferentziak ere bai:



ORIOKOUNDALA



Txirla diskoteka, Biotza gau-kluba, serenoa... Egileak ondo harilkatzen ditu lehengo eta oraingo garaiak kontakizunean eta bikain idatzita dago. Sarituaren izena: Iñaki Iturain.

Olerki eta bertso saila

Epaimahaiak «**Normaltasuna, askatasuna eta geldialdia**» izeneko olerkiari eman dio olerki eta bertsoen saileko accesit bat. Bertso libreko olerkian egileak so egiten dio bizi dugun egoerari eta galderak planteatzen ditu: «zer da normala?», «zer da aske izatea?», «azkarregi ari al gara?» eta ondorioztatzen du pandemiak eragindako geldialdi honek gauza onak ere ekarri dizkigula. Egileak lehen aldia du lehiaketan parte hartzen eta olerki honekin 100 euroko saria eta oroitagiria irabazi ditu. Etorri jasotzera: Esther Arruti.

Beste accesita «**Berandu**» olerkiari eman diogu. Egilea ilunabarrari begira dago, «urre koloreko izpiek» sorginduta, eta apenas ohartzen den ilargia ere hor dagoela atzean, eder, zuri, deika... Sarritan, «urre koloreko izpiek» sorginduta, beranduegi ikusten ditugu benetan inporta zaizkigun gauzak. Olerki honekin 100 euroko saria eta oroitagiria irabazi ditu Goiuri Unanuek.

Olerki eta bertsoetako hirugarren saria, 150 euro eta oroitagiria, «**Eskerrik asko, DO RE NI!**» izeneko bertso-sortak irabazi du. Egileak parte hartu du DO RE NI elkarteak bultzatu duen ikerketan eta irailean kiroldegian egin zen ekitaldian. Esperientzia betegarria izan du eta eskerrak eman nahi izan dizkie antolatzaileei, ondo taxututako bertso hauen bidez. Datorrela saria jasotzera Rosi Lazkano.

Garazi Urretabizkaiak irabazi du 200 euroko bigarren saria, «**Neguan bero**» izeneko bertso-sortarekin. Egileak ez du, itxuraz, ondo eraman konfinamenduak behartutako harreman-eskasia eta diren eta ez diren bitarteko digital berri guztiak probatu ditu solterotzaren karga arintzeko. Grazia handiz kontatu du bere esperientzia bertso hauen bidez. Etorri, faborez, saria jasotzera.



ORIOKOUNDALA



Aurtengo lehiaketaren lehen saria, olerki eta bertso-tako sailean, beste bertso-sorta batek irabazi du. «**Parentesia**» du izena hamar bertso-tako sortak eta bertan koronabirusak sortutako egoera kontatzen du egileak, urtaroz urtaro antolatutako bertso ederretan. Egileak aurreneko aldia du lehiaketan parte hartzen, baina ezagun da ez dela berria bertsolari ofizioan, ondo egokitutako bertso-sorta polita osatu du-eta. Berek dira 300 euro eta oroitagiria. Egilearen izena: Ainhoa Mujika.

Orio, 2020ko abenduaren 3a.